



**2011KO UZTAILAREN 15EKO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako uztailaren hamabostean, arratsaldeko hiru terdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- TOKIKO GOBERNU BATZARRA EGITEKO EGUNA ETA ORDUA FINKATZEA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkezten da Tokiko Gobernu Batzarra egiteko eguna eta ordua finkatzeko proposamena.

Proposamena da Tokiko Gobernu Batzarra hilero egitea, hilaren erdialdian, ostira-letan, arratsaldeko hiru terdietan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, proposamena onartu egiten du.

**II.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AHALMENEN INGURUAN ALKATETZAREN EBAZPE-NAREN BERRI EMATEA.-**

Ondoren, Alkateak, alkatetzaren ebazpen bidez Tokiko Gobernu Batzarrean eskuor-detu dituen ahalmenen berri ematen du.

Alkatetzaren ebazpen horren arabera, Tokiko Gobernu Batzarraren ahalmenak, Toki Araubideko Oinarrien Legearen 23. artikuluan xedatutakoaz gain beste honako hauek izango dira:

- Aurrekontuaren ohiko garapenari dagozkion eta kontuhartzailletza zerbitzuetan jasotako fakturak onartzea.
- Udalbatzarrak onartutako aurrekontuaren eta langileen-zerrendaren arabera lan-eskaintza onartzea. Langileak aukeratzeko eta lanpostuak lehiaketa bidez hornitzeko oinarriak onartzea. Finkoak eta aldizkakoak ez diren osagarrizko soldatak banatzea.
- Lan kontratuko langileak kontratatzea 6 hilabetetik gorakoak diren kontratuetan. eta langile guztien zigorak ezartzea, funtzionarioak zerbitzutik banatzea eta lan hitzarmeneko langileak kalera botatzea izan ezik.
- Udalbatzarraren esku ez dauden planeamendu orokorraren garapeneko planeamendurako tresnak, hirigintza kudeaketarako tresnak eta urbanizazio proiektuak onartzea.



— Edozein motatako kontratuak eta emakidak, beti ere, horiek, ohiko diru-sarreraren %2tik gora eta %10a eta sei milioi euro gainditzen ez badute. Urte anitzetakoak barne egongo dira, horien iraupena lau urte baino gehiagokoa ez bada, zenbateko osoa, lehenengo ekitaldiko ohiko diru-sarrerekin alderatuz adierazitako portzentaia gainditzen ez badu eta adierazitako diru kopuru hori gainditzen ez badu.

— Lan eta zerbitzuetako proiektuak onartzea, hauek kontratatzeke edo emateko aginpi-dea duenean eta aurrekontuan jasota daudenean.

— Dirulaguntzen onarpena.

— Aurrekontuaren ohiko diru-sarreraren %10a eta hiru milioi euro gainditzen ez dituzten ondasunak eta eskubideen eskuraketak onartzea. Era berean, ondarea saltzea, adierazitako portzentaia edo diru kopurua gainditzen ez dutenean honako kasu hauetan:

\* Ondasun higiezinena, aurrekontuan jasota dagoenean.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditzen da.

### III.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2011ko ekitaldiko aurrekontuari dagozkion 7 zbk.dun fakturen zerrenda, BERROGEITA BOST MILA ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA LAUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (45.087,88,-)takoa, eta 9 zbk.dun fakturen zerrenda, HIRUREHUN ETA HEMERETZI MILA SEIEHUN ETA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (319.619,96 €) takoa, bere espedienteetan daudenak, onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

### IV.- BIDEGORRIA 4. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Hiribarren, Elosegi eta Hirigoien kaleen hiritartzeko eta hirigunean bizikletari eta oinezkoentzako bide zatia sartze lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Javier Santos arkitekto teknikoak lanen 4. obra-egiaztagiria luzatu dute. Obra-egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA HIRUROGEITA HMAIKA MILA BERREHUN ETA HAMALAU EURO ETA HOGETA BI ZENTIMO (171.214,22 €) da eta obra burutzen ari den enpresa Sasoi Eraikuntzak, S.L..

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Hiribarren, Elosegi eta Hirigoien kaleen hiritartzeko eta hirigunean bizikletari eta oinezkoentzako bide zatia sartze lanen 4. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

### V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Jarraian kulturako hainbat dirulaguntzaren inguruan kultur teknikariak egindako txostenak aztertzen dira. Txosten hauek ogasun batzordean informatu dira eta honek dirulaguntza horiek emateko proposamena egin du. Proposamenak honako hauek dira:



Lazkao Txiki musika eskola.- Aurrekontuan izendatuta daukan hamabi mila eta hirurehun (12.300 €) euroko dirulaguntzatik orain hirugarren eta azken herena, LAU MILA ETA EHUN (4.100 €) EURO onartu eta ordaintzea.

Hitza egunkaria.- GOIEKIn izenpetutako hitzarmenaren arabera, Hitza egunkariari, urtean, biztanleko bi (2 €) euroko dirulaguntza ematen zaio. Udalak Hitzari emateko dirulaguntza bere 2011ko aurrekontuan aurrikusita dauka, eta zenbatekoa HAMAR MILA ZAZPIEHUN ETA ZORTZI (10.708 €) EUROkoa da. Proposamena dirulaguntza onartu eta orain zenbateko horren erdia ordaintzea da, hau da, BOST MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMALAU (5.354 €) EURO.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaiak aztertu ondoren, aho batez, kulturako dirulaguntza hauek emateko proposamenak onartu egiten ditu.

#### VI.- SAN BENITO IKASTOLARI DIRULAGUNTZA .-

San Benito Ikastolak hitzarmena izenpetuta dauka udal honekin 2009 urtean. 2010 urtean hitzarmen horretan jasotakoaren arabera eman zitzaion dirulaguntza eta orain, baita ere hitzarmen horren baitan, Lazkaoko Udalak San Benito Ikastolari HOGEITA BOST MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HIRU (25.523 €) EUROko dirulaguntza ematea planteatzen da honek garatzen dituen eskolaz kanpoko jarduerengatik. Dirulaguntza hau udalaren 2011ko aurrekontuan jasota dago. Hitzarmenaren arabera, dirulaguntza bi zatitan ordainduko zaio, bata dirulaguntzari onarpena emandakoan eta beste erdia honek garatutako jardueren zuriketa egindakoan, hau egiteko, beranduenera ere, 2012ko urtarrilaren 31ko data finkatzen delarik.

Ogasun batzordeak dirulaguntza hau ematearen aldeko proposamena egin du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren eta ogasun batzordearen proposamena ikusita, aho batez, San Benito Ikastolari proposatutako dirulaguntza ematea erabakitzen du.

#### VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko bostak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

